

98
A1148


ezagutzen al duzu Donostia?

Lugaritzeko Barkaitzegi

Donostiako erdigunetik urruti. Lugaritz auzoan dago *Barkaitzegi* baserria. 1862ko erregistroan aipatu auzoko 90. zenbakia zera-man baserri-etxe honek. Garai bereko Gipuzkoako etxe zerrendetan, berri-z. beste datu interesgarri batzuk irakur daitezke: hiriko udallexetik 6.5 kilometroa dago etxe hau eta hiru solairuko eraikuntza zen, non bi familia bizi ziren. Usurbilgo udalbarrutiko mugatik hurbil, gain zabal batean eta Donostia hiritik Zubieta herrira zihuan bide zaharraren ondoan zegoen. Hirugarren karlista gudua gertatu zuenean Lugaritz eta Ibaetako lurretan gatazka handiak izan ziren. Honela, 1876. urteko urtarrilean *Berio* gaineko *Artolako* gotorlekua harrapatu zuten liberalak «beltzek», eta bertatik karlistenak ziren *Benta Zikin*etik hasi eta *Barkaitzegi*ra arteko gotorlekuak bombardatu zituzten harrapatu aurretik. Honela suntsitu zuten *Barkaitzegi*. Gatazka odoltsu haietan hildako gudariak *Xoldaularria* zelaian daudela entzun izan diet auzoko zaharrei. Ondorengo urteetan gaur ikusten dugun *Barkaitzegi* baserri berria eraiki zen, baserri zaharraren kokapenetik 200 metro hegoaldera eta haren harriekin.



Barkaitzegi baserriaren ikullu-aurreak.



Barkaitzegi baserria 1996ko otsailean.



Xoldaularria, 1876. urteko gatazkan hildakoen hilerria. Laister eraikitzeko den autobide berri batek gaurko baserriaren d...

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE